

NAFARROAN FM IRRATI LIZENTZIA BERRIAK

Bilbon, 1997.eko azaroaren 3an

Miguel Sanz Jaun Txit Gorena,
Nafarroako Gobernuaren Lehendakaria

Jaun agurgarria:

Euskaltzaindiak, 1997.eko urriaren 31n, egoitza honetan izandako hileroko bilkuran, Nafarroan FM irrati lizentzia berriak banatu behar direla-eta, Jagon Sailak hala eskatuta, Nafarroako Ordezkaritzak egindako proposamena onartu du. Aldi berean, proposamen testua Jaun Txit Goren horri igortzea erabaki du.

1. Euskaltzaindia lau Foru Diputazioen babespean —Nafarroakoa barne—, sortu zen 1918an eta, bertzeak bertze, honako hauek dira bere helburuak (otsailaren 26ko 573/1976 Erret Dekretuko lehenengo artikuluan bilduak daudenak):

— Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.

— Hizkuntzak gizarte maila guzietan adierazpen gaitasuna izan dezan lan egitea.

— Euskararen erabilera sustatzea.

2. Bertzalde, abenduaren 15eko 18/1986 Euskararen Foru Legeak euskara nafar guzien ondare kulturala eta nortasunaren ezaugarria izateaz gainera, gizartearen elkarkidetasun eta komunikaziorako tresna ere badela dio, eta bere 27.1. artikulua zera agintzen du: “Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan”, eta “komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomi eta material laguntza-planak gauzatzuko ditu”.

3. Nafarroako Gobernuak, 18/1986 Foru Legea indarrean sartu ondoren, egin zuen frekuentzien banaketan, bidegabeko erabaki ulertezin baten bidez, esleipenetik kanpo utzi zituen euskaraz ari ziren irratiak.

4. Orain, berriki, jakin izan da Erret Dekretu baten bidez Nafarroako Erkidegoari bertze zortzi lizentzia eman zaizkiola, eta horien banaketarako deia eta esleipenaren oinarriak Nafarroako Gobernuak ezarri beharko dituela.

Berri on hau dela eta, Euskaltzaindiak zure Zuzendaritzapeko Gobernuari eskatu nahi dio, 573/1976 Erret Dekretua eta 18/1986 Foru Legea betez eta Nafarroak egun duen hizkuntz egoera kontuan hartuz, bitarteko egokiak jar ditzala frekuentzia berrien esleipena, gure gizartearen kopuru haundi baten hizkuntz eskubideen kaltetan suerta ez dadin, eta Erkidego osoko beharrak bete ditzan. Izan ere, Iruñerrikoenak, gaur egun Nafarroako euskal hiztun gehienak hor bizi direlako eta, ondorioz, bertan euskarazko irratia beharrezko dutelako; eta euskal eremukoenak, eskualde horrek zerbitzu egokiz horniturik egon behar duelako.

Erakunde honen Zuzendaritzak, joan den otsailean zuri egindako bisita ofizialean, zure ahotik entzun ahal izan zuen nafarren hizkuntza eta Nafarroan ofizialkide den euskararen aldeko jarrera eta laguntza ematen segitzeko borondatea zenuela. Euskaltzaindak, zure hitzak errealitate bihurtzeko ahaleginak egingen dituzula espero du azaldutako gai garrantzitsu honetan.

Bide batez begirunerik leialena adierazten dizu.

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

* * *

LICENCIAS DE RADIO FM A ADJUDICAR EN NAVARRA

Excmo. Sr. D. Miguel Sanz Sesma,
Presidente del Gobierno de Navarra

Distinguido Sr.:

La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en su sesión plenaria, celebrada en esta sede el pasado día 31 de octubre de 1997, aprobó la propuesta planteada por su Sección Tutelar y realizada por la Delegación en Navarra, acerca del tema referente a las nuevas licencias de radio FM a adjudicar en Navarra. Acordó, asimismo, dirigirle a S.E. el texto de la misma que es el siguiente:

1. Entre los fines de esta Real Academia —creada en 1918 bajo los auspicios de las cuatro Diputaciones Forales, incluida la de Navarra—, plasmados en el artículo primero del Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero se incluyen, entre otros, los siguientes:

— Velar por los derechos de la lengua.

— Trabajar en la capacitación de la lengua, a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.

— Promover el uso de la lengua.

2. Por otra parte, la Ley Foral del Vascuence 18/1986 de 15 de diciembre, define al euskera como elemento de identificación y patrimonio cultural de todos los navarros, así como elemento de convivencia y vehículo de comunicación en la vida social, y en su artículo 27.1. establece que “las Administraciones Públicas promoverán la progresiva presencia del vascuence en los medios de comunicación social públicos y privados”, correspondiendo al Gobierno de Navarra la “elaboración de planes de apoyo económico y material para que los medios de comunicación empleen el vascuence de forma habitual y progresiva”.

3. En adjudicación de frecuencias realizada por el Gobierno de Navarra, con posterioridad a la entrada en vigor de la citada ley 18/1986, se dejó incomprendible e injustamente fuera de las adjudicatarias las emisoras de radio en euskera.

4. Se ha tenido conocimiento de que, a través de un reciente Real Decreto, se le han concedido a la Comunidad Foral ocho nuevas licencias, para cuyo concurso y adjudicación deberán establecerse las correspondientes bases por parte del Gobierno Foral.

Ante esta buena noticia, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia quiere aprovechar la ocasión para solicitar al Gobierno de su Presidencia que, en cumplimiento del Real Decreto 573/1976 y de la Ley Foral 18/1986, así como en atención a la realidad lingüística actual de Navarra, arbitre los mecanismos adecuados para que la adjudicación de las nuevas frecuencias no lesione los derechos lingüísticos de una parte importante de la población navarra y, en consecuencia, cubra sus necesidades en todo el ámbito de la Comunidad, con especial atención, por una parte, al área metropolitana de Pamplona —donde reside el mayor número de habitantes vascófonos de la Navarra actual—, de forma que la misma pueda contar, al menos, con una radio en euskera y, por otra, a toda la territorialidad de la zona vascófona, para que en ella se implante el suficiente y adecuado servicio.

Esta Real Academia confía que la actitud en favor de la *lingua navarrorum*, cooficial de la Comunidad Foral, que S.E. mostró en la visita oficial otorgada a la Junta de Gobierno de esta Institución en el mes de febrero del año en curso, se manifieste en la realidad.

Aprovecha la ocasión para testimoniarle su consideración más distinguida.

Jean Haritschelhar,
Presidente